



HOW TO MAKE FRIENDS AND INFLUENCE PEOPLE

Gala Knörr



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

2021eko uztailaren 8tik irailaren 12ra
Del 8 de julio al 12 de septiembre de 2021

ARTE ORO UMOREA DA

Gonzalo Herrero Delicado

Formaltasuna bukatzen den eta politikoki zuzenaren mozalak desagertzen diren lekua da umorea. Zirikatzeo artearen bitartez kausa bati buruzko gogoeta eragin nahi du. Askotan demokraziarekin lotzen dugu umorea, gure iritziak askatasunez adierazteko eta inguratzen gaituzten testuinguruak zalantzan jartzeko markoa baita. Umore adimentsua bada, haren lotsagabekeriak boterearen bihotzean jotzea ahalbidetzen digu, beldurtuz eta aurre eginez.

Alfredo Jaar artistaren ustez, “arte oro da politikoa”. Baieztapen horri umoreak tresna politiko gisa joka dezakeen paper gehitzen badiogu, zalantzarik gabe, berebiziko garrantzia du jarduera artistikoari umorea berriro itzultzeak. Kulturaren, artearen, literaturaren, zinemaren edo antzerkiaren adar guztietan apurtzaileen direnek lortzen dute talde baten edo besteren nahigabeak iraultzea, satiraren bitartez, eta aldi berean publikoa irabaztea eta, batzuetan, trufaren jomuga direnek ere txalotzea.

Knörrek politikan duen interesa agian bere euskal jatorritik dator, laurogeita hamarrek hamarkadan politika eguneroko elkarrizketen zatia baitzen, eta horrek zientzia politikoetan matrikulatzera bultzatu zuen. Baina gutxi iraun zuen, eta nahiago izan zuen karrera artistiko bati ekitea.

Laurogeita hamarrek hamarkadaren bigarren zatia bereziki garrantzitsua izan zen haren prestakuntza pertsonalean. Har dezagun 1996. urtea adibidetzat. Knörr nerabea zen, eta munduan hartuko zuen lekua definitzen hasi zen. Aznar lehendakari izatera iritsi zen, Caiga Quien Caiga saioa ematen hasi ziren, eta Spice Girls taldeak “Wannabe” atera zuen, inoiz lortuko zuten arrakastarik handiena. Politika, umorea eta pop kultura. Hiru esparru horiek definitzen dute Knörrek erakusketa honetan aurkezten duen lana.

Garai hartan, berriz, internet zerbait bitxia zen, eta espainiarren % 1.3k baino ez zuen sarbiderik. Artean ez zen memetik esistitzen, hau da, orokorrean karikatura helburuekin itxuragabetzen diren irudi, bideo edo testuak, nagusiki internetez zabaltzen direnak eta satiraren ordezkari garaikidetzat jo litezkeenak. Richard Dawkins idazle ingelesak *The Selfish Gene* lanean dioenez, kultura garaikidea-arentzat memeak dira gizakientzat geneak direna, pop kulturaren darwinismo moduko batez katalizatzen baitute kulturaren bilakaera.

Knörrek memeak baliatzen ditu inguratzen duen munduaz dituen iritzi satirikoak formalizatzeko. Komentario garratzak dira, eta bitarteko lotsagabeak erabiltzen ditu aurkezteko, askotan merchandising-aren formatu iragankorrekin arte ederrekin baino zerikusi handiagoa dutenak. Horrek denak esperientzia ezeroso, ludiko eta subliminala sortzen du, baino ez sakontasun edo kritika gutxiagokoa hala ere. Esperientzia honetan, guztiok gara ongietorriak geure iritziak ematera eta bizi dugun une konplexuaren kritika garrantzitsu eta beharrezkoan parte hartzera.

TODO ARTE ES HUMOR

Gonzalo Herrero Delicado

El humor es ese lugar donde termina lo formal y desaparecen las mordazas de lo políticamente correcto. A través del arte de incomodar, su principal objetivo es interpelar a una causa. A menudo relacionamos el humor con la democracia, como marco para poder expresar libremente nuestras opiniones y cuestionar los contextos que nos rodean. Si el humor es inteligente, su irreverencia nos permite golpear el corazón del poder, intimidándolo y confrontándolo.

Según el artista Alfredo Jaar “todo arte es político”. Si a esa afirmación añadimos el importante rol que puede jugar el humor como herramienta política, entonces no cabe duda de la relevancia de devolver el humor a la práctica artística. Son los más transgresores en todas las ramas de la cultura, arte, literatura, cine o teatro, quienes a través de la sátira consiguen subvertir los descontentos de un grupo u otro, al tiempo que ganarse al público y en algunos casos incluso ser celebrados por aquellos de quienes se mofan.

El interés de Knörr por la política quizás viene de sus orígenes vascos, donde en los noventa la política era parte de las conversaciones de cada día, y le llevaron a matricularse en la universidad en ciencias políticas. Duró poco y prefirió centrarse en una carrera artística.

La segunda mitad de los noventa fue un periodo particularmente importante en su formación personal. Tomemos el año 1996 como ejemplo. Knörr es una adolescente y empieza a definir su propia posición en el mundo. Aznar se convierte en presidente, el programa Caiga Quien Caiga empieza a emitirse y las Spice Girls lanzan “Wannabe”, el mayor éxito de su historia. Política, humor y cultura pop. Tres marcos que definen el trabajo de Knörr presentado en esta exposición.

Sin embargo, en aquel momento internet era algo extraño y sólo el 1.3% de los españoles tenía acceso. Los memes, esas imágenes, videos o textos, por lo general distorsionados con fines caricaturescos, que se difunde principalmente a través de internet y que bien podrían entenderse como la representación contemporánea de la sátira, aún no existían como tal. Según el autor inglés Richard Dawkins en su libro *The Selfish Gene*, los memes son a la cultura contemporánea como los genes a los humanos, catalizan la evolución cultural como una forma de darwinismo en la cultura pop.

Knörr utiliza los memes como vehículo para formalizar sus comentarios satíricos sobre el mundo que le rodea. Estos comentarios mordaces los presenta a través de medios igualmente irreverentes, que a menudo tienen más que ver con los formatos efímeros del merchandising que con las bellas artes. Todo junto genera una experiencia incómoda, lúdica y subliminal, pero no por ello menos profunda o crítica. Una experiencia donde todos estamos bienvenidos a generar nuestras propias opiniones y participar de la importante y necesaria crítica del complejo momento en el que vivimos.